

OPEN SPACE

NOLA LAGUNDU DEZAKEGU ELKARBIZITZA HOBETZEN EUSKADIN?

Giza Eskubide eta Bake
Hezkuntzaren Elkartearen foroa



Foro de Asociaciones de Educación
en Derechos Humanos y por la Paz

Elkarteko kide estimatuak:

2012ko urtarrilaren 26an Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroak topaketa oso berezia egingo du. Ekintza hori **“Nola lagundu dezakegu elkarbizitza hobetzen Euskadin?”** izeneko Open Space bat da. Horren bidez, gure etorkizuneko ildo estrategikoak definitu nahi ditugu zure proposamen, kritika eta ideiak kontuan hartuz.

Zuen erakundean parte hartzeko prest zaudeten eta datozen garai berrietarako erronkak elkarrekin diseinatzeko interesaturik zaudeten guztiak gonbidatu nahi zaituztegu.

Ekintza **Bilborock** aretoan egingo da, **Bilbon, Mesedeetako kaia 1**. Goizeko **9:00etan** hasi eta **14:30ean** amaituko da. Bertaratzen diren guztiei eskainiko zaizkie **gosaria eta mokaduak** egunean zehar topaketaren egoitzan.

Bertartzeko asmorik baduzue **asistentzia konfirmatzea** eskatzen dizuegu urtarrilaren 16a baino lehen, Foroko idazkaritza teknikoarekin (Ziortza Bergara) harremanetan jarrita, **688 801 794** telefonora deituta edo **foroasociacionesddhhypaz@gmail.com** emaila erabiliz.

Ondoko galdera eta erantzunek adierazten dute zer den Open Space bat eta nola funtzionatzen duen.

- ⇒ **Zer da Open Space bat? Orain arte ezagutu ez duzun zerbait da, guztiz desberdina!**
Talde handien bilerak egiteko metodologia da Open Space, konpromisoan, erantzukizunean, errespetuan, elkarriketan, talde lanean, autogestioan eta partekatutako lidergoan oinarritutakoa.
- ⇒ **Zein da topaketaren programa? Zuk zeuk erabakitzen duzuna.**
Parte hartzaile bakoitzak eguneko agendan sar dezake interesatzen zaion edo kezkatzen duen edozein gai.
- ⇒ **Zeintzuk dira aditu gonbidatuak? Zu eta biok.**
Ez dago hizlaririk, mahai-ingururik, komunikaziorik, ezta power point aurkezpenik ere. Pertsona bakoitzak bere intereseko lantaldeetan parte har dezake.

OPENSPACE

NOLA LAGUNDU DEZAKEGU ELKARBIZITZA HOBETZEN EUSKADIN?

Giza Eskubide eta Bake
Hezkuntzaren Elkartearen foroa



Foro de Asociaciones de Educación
en Derechos Humanos y por la Paz

⇒ **Nola funtzionatzen du Open Spaceak? Erraza eta sinplea da.**

Sarrera egiteko osoko bilkura labur batekin hasiko da jardunaldia, bertan jarraitu beharreko jarraibideak eta oinarriak azalduko dira, eta baita zeure agenda nola sortu eta kudeatu ere. Jarraian topaketa irekiko da eta gonbidatu egingo zaizu landu eta hitz egin nahi dituzun gaiak edo kontuak definitzera. Ondoren, eztabaida gaiak antolatuko ditugu, ordutegia eta gunea zehaztuz. Hortik aurrera, zure interes eta kezken arabera erabaki egin ahal izango duzu zer lantaldetan parte hartu eta beste kide batzuekin partekatu nahi dituzun ideiak. Azkenik, azken orduan, osoko bilkura batek itxiko du topaketa.

⇒ **Nor dago gonbidatua parte hartzera?**

Giza eskubide eta bake hezkuntzaren elkartearen foroan parte hartzen dugun entitate guztiak.

Gainera, mundu akademiko, politiko eta abarreko beste pertsona batzuk ere bertaratuko dira, bakearekin eta giza eskubideekin konpromiso berezia dutenak.

⇒ **Zer emaitza lortuko dugu?**

Lantalde bakoitzak aztertutakoari buruzko txosten bat egingo du. Open Spaceko azken memoriak landutako txosten guztiak jasoko ditu, eta posta elektronikoz bidaliko zaie parte hartzaile guztiei topaketa amaitu eta 24 orduko epearen barruan.

Foroko zuzendaritza batzordeak konpromisoa hartzen du emaitza hauek kontuan hartzeko datozen jardunbideak definituko dituzten oinarri gisa.

Adeitasunez,

Gorka Ruiz

Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroko presidentea